



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2016IPLE0002

Eguna: 2016-02-26

Ordua: 19:00 – 19:35

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Jesus M ^a Santos Anabitarte	EAJ-PNV
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Juan Martin Arregui Sagües	EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos	EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro	EAJ-PNV
- Andoni Gartzia Arruabarrena	EHBildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz	EHBildu
- Ander Goicoechea Ocariz	EHBildu
- Ainara Vázquez Martínez	EHBildu
- Iker Goñi Salaberria	EHBildu
- M ^a Teresa Bernal Monroy	EHBildu
- Mikel Durán Gonzalo	Euskadiko Sozialistak

Bertaratu ez direnak

-

Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2016ko urtarrilaren 16ko aktaren onarpena	1.	Aprobación del acta de 16 de enero de 2.016.
Atez ateko hiri hondakinen bilketa sistemari buruzko kontsulta. Galdeketaren prozedura onartzea.	2.	Consulta relativa a la recogida de residuos. Aprobación del procedimiento de la consulta.
EHBilduren mozioa – Emakume kurduen hilketara salatzena.	3.	Moción de EHBildu – Denuncia sobre el asesinato de mujeres kurdas.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

EHBilduren mozioa – Sahararen aldeko adierazpen instituzionala.	4	Moción de EHBildu – Declaración institucional Sahara.
Informazio, galdera eta eskariak	5	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

Alkateak udal talde guztiek Emakumeen Nazioarteko Eguna (Martxoak 8) aldarrikatzeko adostutako mozioa premiaz gai zerrendan sartzeko proposamena egin du. Proposamena bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

1.- 2016ko urtarrilaren 16ko aktaren onarpena

Akta, aho batez, onartu da.

2.- Atez ateko hiri hondakinen bilketa sistemari buruzko kontsulta. Galdeketa erregistroaren prozedura onartzea.

Kirolak, gardentasuna eta parte-hartze batzordearen irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

Lehena.- Ordezko udal idazkariak 2016ko otsailaren 1eko txosten juridikoan jasotako proposamen hauek onartzea:

a.- Parte-hartzaile eta galdeketa-erregistroaren osaketa.

b.- Botoa aurrez emateko aukera idazkaritzatik bideratzea, proposatutako prozedura jarraituz.

c.- Galdeketa udaletxean egitea, botoa emateko 6 sekzio eratzea eta mahaien banaketa abizenen arabera egitea, herritarrek honela banatuz:

1 mahaia, A, eta B abizenak.
2 mahaia, C, D, E, eta F abizenak.

El alcalde propone la inclusión urgente en el orden del día de la moción acordada por todos los partidos para la reivindicación del Día Internacional de la Mujer (8 de marzo). Tras la votación la propuesta queda aprobada por unanimidad.

2.- Aprobación del acta de 16 de enero de 2.016.

El Acta es aprobada por unanimidad.

2.- Consulta relativa a la recogida de residuos. Aprobación del procedimiento de la consulta.

Se presenta, para su aprobación, un dictamen de la comisión de deportes, transparencia y participación:

Primero.-Aprobar las siguientes propuestas recogidas por la secretaria accidental en el informe jurídico de 1 de febrero de 2016:

a.- Composición del censo de participantes y de la consulta.

b.- Tramitar desde secretaria el voto anticipado, siguiendo el procedimiento propuesto.

c.- Realizar la consulta en el ayuntamiento, organizar 6 secciones para votar y repartir las mesas por apellidos, distribuyendo a la ciudadanía de la siguiente manera:

Mesa 1, apellidos que empiezan por A y B.
Mesa 2, apellidos C, D, E y F.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

3 mahaia, G, H I, J, eta K, abizenak.
4 mahaia, L, eta M abizenak.
5 mahaia, N O P, Q, eta R abizenak.
6 mahaia, S, T, U, V, W, X, Y eta Z abizenak.

d.- Alderdiak mitinak emateko leku hauek baimentzea: kultur etxeko areto nagusia, udaletxea eta herriko kale eta plaza guztiak.

e.- Galdeketerako kartelentzat 14 panel jartzea herriko 7 puntu hauetan banatuta: Kale Nagusia 62, Ergobia, Santiagomendi, Pelotari kalea 6, Donostia ibilbidea 17, Foru plaza eta Barandiaran plaza

f.- Galdera bakoitzeko kolore desberdineko boto-papera erabiltzea, eta gutun-azalean udal-armarria bakarrik jartzea (ezkerraldean eta behean).

g.- Artekari eta ahaldunen izendapena.

h.- Galdeketa-eguneko proposamena: Mahaien osaketa, mahaikideen egin beharrak, botoa ematea, boto kontaketa...

i.- Galdeketa egunean erabiliko diren agiri hauek (1. Eranskina): eraketa-akta, galdeketa-eroldako zerrendak, boto emaileen zerrenda-zenbakiduna, boto-kontaketa eta bilkura-akta, artekarien izendapen eskaera, ahaldunen izendapen eskaera eta bozkatu izanaren edo utzi ez izanaren ziurtagiria.

Bigarrena.- Mahaikideak eta horien aukeraketari dagokionez, erabaki hauek hartzea:

a.- Mahaikideak udal zinegotziak eta boluntarioak (bai langileak bai herritarrek) izatea.

b.- 3 mahaikideetatik 1 udal langilea izatea, bestea zinegotzia eta hirugarrena herritar boluntarioa.

c.- Herritarrei mahaikide izateko baldintza

Mesa 3, apellidos G, H I, J y K.

Mesa 4, apellidos L y M.

Mesa 5, apellidos N, O, P, Q y R.

Mesa 6, apellidos S, T, U, V, W, X, Y y Z.

d.- Autorizar los sitios señalados a continuación para que los partidos realicen sus mítines; sala polivalente de la casa de cultura, ayuntamiento y todas las calles y plazas de la localidad.

e.- Instalar 14 paneles para los carteles de la consulta, distribuidos en estos 7 puntos de la localidad: Kale Nagusia 62, Ergobia, Santiagomendi, Pelotari kalea 6, Donostia ibilbidea 17, Foru plaza y Barandiaran plaza.

f.- Utilizar votos de colores diferentes para cada pregunta; en el sobre únicamente aparecerá el escudo municipal, en la parte inferior izquierda.

g.- Nombramiento de intermediarios y apoderados.

h.- Propuesta para el día de la consulta: composición de las mesas, obligaciones de los integrantes de las mesas, votación, recuento de votos.

i.- Documentos (anexo 1) que se utilizarán el día de la consulta: acta de constitución, listas de censo, relación numerada de votantes, recuento de votos y acta de la sesión, solicitud de nombramiento de interventores y apoderado, y certificado de haber ejercido el derecho a voto o de denegación de voto.

Segundo.- En lo referente a los miembros de mesa y a su elección, adoptar los siguientes acuerdos:

a.- La mesa estará integrada por concejales y voluntarios (trabajadores-as del Ayuntamiento y vecinos-as).

b.- De los 3 miembros 1 será trabajador-ra municipal, otro concejal y el tercero voluntario.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

hauek eskatzea: Astigarragan erroldatua egotea, 16 eta 65 urte bitarte edukitzea eta gutxienez eskola graduatua edo baliokidea gaindituta edukitzea.

d.- Herritarrek mahaikide izateko izenemate orria (3. eranskina) onartzea, eta eskabideak aurkezteko epea martxoaren 23a arte irekitzea. Horren berri prentsa eta bandoen bidez egitea, eta herritarrei jakinaraztea eskaera egiteak ez duela bermatzen galdeketa-mahaian egongo dela.

e.- Galdeketa eguna baino egun pare bat lehenago, prozeduraren nondik norakoak azaltzeko bilera bat egitea.

Hirugarrena.- Kanpaina instituzional bezala diptikoak eta kartelak egitea, eta horietan informazio hau jartzea:

4. Galdera

5. Bi sistemen inguruko informazioa.

6. Galdeketa buruzko informazioa orokorra: eguna, lekua, ordua, nork bozkatu dezakeen, botoa aurrez emateko aukera dagoela, eta botoa emateko aurkeztu beharrekoa agiria (nortasun-agiria, pasaportea, gidabaimena edo atzerritarren nortasun-txartela).

Laugarrena.- Tokiko Gobernu Batzordearen esku erabaki hauek uztea:

a.- Mahaikideen eta ordezkoen izendapena egitea, eta horien aukeraketaren inguruko erabakiak hartzea.

b.- Herri-galdeketa burutzeko udal osoko bilkurak hartu gabeko gainerako erabaki guztiak, baldin eta horiek hartutako erabakiekin kontra-esanean ez badaude.

Alkateak hartu du hitza eta 3 taldeek adostutako prozesua dela esan ondoren, hitza

c.- Solicitar los siguientes requisitos para los/las voluntarios/as: estar empadronado en Astigarraga, tener entre 16 y 65 años y estar en posesión, por lo menos, del graduado escolar o título equivalente.

d.- Aprobar la hoja de inscripción para ser voluntario/a (anexo 3), y abril hasta el 23 de marzo el plazo para presentar las solicitudes. Difundir la noticia a través de la prensa y bandos, haciendo hincapié de que el hecho de presentar la solicitud no garantiza su participación en la mesa.

e.- Organizar una reunión para explicar los pormenores del procedimiento, un par de días antes del día de la consulta.

Tercero.- Elaborar dípticos y carteles como campaña institucional, incluyendo esta información:

7. Pregunta.

8. Información sobre los dos sistemas.

9. Información general sobre la consulta: fecha, lugar, hora, quién puede votar, posibilidad de votar con antelación, y documento identificativo para votar (documento de identidad, pasaporte, permiso de conducir o tarjeta de identidad de extranjero).

Cuarto.- Delegar a la Comisión de Gobierno Local la aprobación de los siguientes acuerdos:

a.- Nombramiento de los integrantes de la mesa y de los suplentes, y toma de decisiones sobre su elección.

b.- Adopción del resto de acuerdos no adoptados por el pleno municipal para llevar a cabo la consulta popular, siempre y cuando no contradigan las decisiones adoptadas por dicho pleno.

Toma la palabra el alcalde, y tras indicar que se trata de un proceso acordado por los tres



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

pasa dio Nerea zinegotziari. Horrek adierazi du txosten juridikoa oinarri hartuta, bilera eta batzordeetan adostutako prozedura dela. Bide batez, komentatu du galdeketa-deialdia otsailaren 29an egingo dela, eta galdeketa apirilaren 17an izango dela.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

3.- EHBilduren mozioa – Emakume kurduen hilketa salatzeke

EHBildu taldeak aurkeztutako mozioa aurkeztu da onartua izan dadin:

Hiru emakume ekintzaile kurduen hilketa politiko hau salatu eta honakoa exijitzen du Astigarragako Udalak:

1.- *Inpunitatearen amaiera eta krimenaren ardura dutenek justiziaren aurrean erantzun dezatela.*

2.- *Ez dezatela ekintzaile politiko, giza-eskubideen defendatzaile eta kazetari gehiago hil.*

3.- *Hiri kurduetan amai dadila etxeratze agindua.*

4.- *Indar militar eta paramilitarrak erretira daitezela hiri kurduetatik.*

5.- *Su-etena eman dadila eta bake-elkarrizketak berriro hasi.*

6.- *Pertsonak, baina batez ere emakumeek, pairatzen dituzten abusu, irain eta tratu txarrak amai daitezela.*

7.- *Erabaki honen guztiaren berri Turkiako enbaxadari jakinaraztea.*

Alkateak hitza Andoni zinegotziari pasa dio. Horrek bere taldeak mozioa aurkeztu izanaren

grupos, cede la palabra a la concejal Nerea. Esta señala que se trata de un procedimiento que teniendo como base el informe jurídico, se ha acordado en las diferentes reuniones y comisiones. Asimismo comenta que la convocatoria de la consulta se va a realizar el 29 de febrero, y se celebrará el 17 de abril.

Tras la votación, se aprueba el dictamen por unanimidad.

3.- Moción de EHBildu – Denuncia sobre el asesinato de mujeres kurdas

Se presenta, para su aprobación, una moción presentada por el grupo EHBildu:

El Ayuntamiento de Astigarraga denuncia el asesinato de tres mujeres activistas kurdas, y exige lo siguiente:

1.- Acabar con la impunidad, y que los responsables del crimen respondan ante la justicia.

2.- No más asesinatos de activistas políticos, defensores de los derechos humanos y periodistas.

3.- Eliminación del toque de queda en las ciudades kurdas.

4.- Retirada de las fuerzas militares y paramilitares de las ciudades kurdas.

5.- Declaración de alto el fuego y reinicio de las conversaciones de paz.

6.- Poner fin a los abusos, insultos y malos tratos que sufren todas las personas, y sobre todo las mujeres.

7.- Comunicar a la embajada de Turquía el contenido de esta resolución.

El alcalde cede la palabra al concejal Andoni. Éste tras señalar que su grupo ha presentado



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

arrazoa azkeneko 3 emakumeen erailketa salatu eta elkartasuna adierazteko izan dela aipatu ondoren, adierazi du mozioa bozeramaile batzordean aztertu zela eta talde guztien adostasunarekin ekarri dela udal osoko bilkurara.

Mozioa bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

4.- EHBilduren mozioa – Sahararen aldeko adierazpen instituzionala

EHBildu taldeak aurkeztutako mozioa aurkeztu da onartua izan dadin:

Astigarragako Udal Osoko Bilkurak ondorengoa adierazten du:

1.- *Berretsi egiten du RASDeko gobernu legitimoa eta Fronte POLISARIOA errekonozitzen dituela, eta behin berriro aldarrikatzen du Saharar Herriak legez duen autodeterminatzeko eskubidea. Era berean, Espainiako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola estatus diplomatikoa Fronte POLISARIOAren Espainiako Ordezkaritzari, bera baita Saharar Herriaren ordezkari bakar eta legitimoa, NBEk hala aitortua.*

2.- *Espainiako Gobernuari eta nazioarteko komunitateari eskatzen die bultza ditzatela beharrezko ekimen politiko guztiak konponbide zuzen eta behin betiko bat erdiesteko, erreferendum baten bidez, Nazio Batuen ebazpenen arabera.*

3.- *Marokoko agintariei eskatzen die bertan behera utz dezatela giza eskubideen alde diharduten saharar aktibisten aurkako jazargoa, saharar preso politikoak aska ditzatela eta argi dezatela desagertutako 400 saharar baino gehiagoren patua.*

4.- *Espainiako Estatuari eskatzen dio har dezala bere gain duen erantzukizun historikoa; aktiboki lan egin dezala Europar Batasunaren barruan eta aprobetxa dezala*

la moción para denunciar el último asesinato de 3 mujeres y expresar su solidaridad, añade que dicha moción fue analizada en la comisión de portavoces, habiéndose traído al pleno con el visto bueno de todos los grupos.

Tras la votación la moción queda aprobada por unanimidad.

4.- Moción de EHBildu – Declaración institucional Sahara.

Se presenta, para su aprobación, una moción presentada por el grupo EHBildu:

El pleno del Ayuntamiento de Astigarraga manifiesta lo siguiente:

1.- *Reafirma su reconocimiento al legítimo gobierno de la RASD y al Frente POLISARIO y manifiesta, una vez más, el derecho de autodeterminación que legalmente asiste al Pueblo Saharaui. Asimismo le pide al Gobierno de España que le dé el estatus diplomático a la Representación del Frente POLISARIO en España, único y legítimo representante del Pueblo Saharaui, reconocido así por la ONU.*

2.- *Insta al Gobierno de España y a la comunidad internacional a que promuevan todas las iniciativas políticas que sean necesarias para lograr una solución justa y definitiva, mediante la celebración de un referéndum, conforme a las resoluciones de Naciones Unidas.*

3.- *Insta a las autoridades marroquíes a que cesen las persecuciones contra los y las activistas saharauis de derechos humanos, a que liberen a los presos políticos saharauis y esclarezcan el destino de más de 400 saharauis desaparecidos.*

4.- *Insta al Estado español a que asuma su responsabilidad histórica y trabaje activamente dentro de la Unión Europea y aproveche su*



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan dagoela, MINURSOri luzatu dakion Mendebaldeko Saharan giza eskubideak zaintzeko emana duen agindua.

5.- Berretsi egiten du bere konpromisoa lan egiteko bai Tindufen (Aljeria) babestuta dauden errefuxiatu-kanpamenduetan, bai Marokok legez kontra okupatutako lurraldeetan, Euskal gizarteak Saharar Herriak bere askatasunaren alde daraman borroka zilegiari ematen dion sostenguaren erakusgarri.

6.- Bene-benetan eskertzen du euskal herritarren lankidetzaren interes-gabea eta eskuzabaltasuna, horiei esker aurrera eraman daitezkeelako Saharar Herriarekiko lankidetzaren proiektuak, hala nola den euskal elkartasun-karabana, Oporrak Bakean, e.a.

7.- Hurrengo urteetan, Astigarragako Udalarik Sahararen Euskal Karabanaren ekimenen zuzenean eta aktiboki parte-hartzea eskatzen dio.

Alkateak Andoni zinegotziari pasa dio hitza, eta horrek adierazi du mozioa aurkeztu izanaren arrazoiak, 40 urte beranduago egoera berdina edo okerragoa izatea dela.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du mozio hau bozeramaileen batzordean aztertu zela eta talde guztien adostasunarekin ekarri dela udal osoko bilkurara.

Mozioa bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

5.- Martxoak 8 eguna Aldarrikatzeko mozioa

Alkateak azaldu du mozio hau taldeen artean prestatutako testu bat dela; EHBilduk eta PNV-EAJ taldeek mozio bana aurkeztu zutela, eta bi testuekin testu berri hau adostu dela.

presencia en el Consejo de Seguridad de Naciones Unidas para que la MINURSO vea ampliado su mandato a la vigilancia de los derechos humanos en el Sáhara Occidental.

5.- Se reafirma en su compromiso de trabajar tanto en los campamentos de población refugiada en Tinduf (Argelia), como en los territorios ilegalmente ocupados por Marruecos como muestra del apoyo mayoritario de la sociedad vasca a la legítima lucha del Pueblo Saharaui por su libertad.

6.- Agradece sinceramente la colaboración desinteresada y la generosidad de los ciudadanos y las ciudadanas vascas que hacen posibles proyectos de cooperación con el Pueblo Saharaui, tales como la Caravana vasca solidaria, Vacaciones en Paz, etc.

7.- Solicita al Ayuntamiento que participe directamente y activamente en la iniciativa de la Caravana Vasca a favor del Sahara de los próximos años.

El alcalde cede la palabra al concejal Andoni, quien indica que la razón para presentar la moción es porque 40 años después la situación sigue sin cambiar, o es incluso peor.

Toma la palabra el alcalde, y señala que dicha moción fue tratada en la comisión de portavoces, habiéndose traído al pleno tras ser aprobada por todos los grupos.

Tras la votación la moción queda aprobada por unanimidad.

5.- Moción para la reivindicación del día 8 de marzo

El alcalde explica que el texto de esta moción ha sido elaborado entre los diferentes grupos, que Grupos EHBildu y PNV-EAJ presentaron una moción cada uno, y que los dos textos se han redactado un texto consensuado entre todos.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Hiru taldeen bozeramaileek adostasun batetara iritsi izanagatik zoriondu egin dira, eta Mikel zinegotziak gaineratu du mota honetako mozio batean normalena akordio batetara iritea dela. Bestetik, Zorione zinegotziak adierazi du bozeramaileen batzordean adostasun batetara ez iritsi arren, Andoni zinegotziak egindako lanari esker mozia bileran honetan sartzea lortu dela; eta mozia udalean hiru taldeen izenean erregistratu dela ere aipatu du.

Jarraian Andoni zinegotziak mozioaren testua irakurri du:

Udalerri eta Eskualdeetako Gobernuak bat egin dute Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren alde, Europan eta Munduan

Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasuna Tokiko Bizitzan Sustatzeko Batzorde Iraunkorrak adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarritzko balioa dela demokraziarentzat.

Tokiko eta eskualdeetako gobernuak herritarrengandik gertuen dauden esferak dira, eta, hortaz, esku-hartzerako maila garrantzitsuak dira oraindik ere dirauten desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeen eskubideak Europan eta mundu osoan sustatzeko.

Emakumeen Nazioarteko Egun honetan, 2016ko martxoaren 8an, tokiko eta eskualdeetako gobernuen ordezkariak helburu hauen inguruan elkartu dira:

- Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan –tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa-, emakumeek eta gizonek parte-hartze berdina izan dezaten eraikuntza eta erabakiak hartzeko prozesuetan;

Los portavoces de los tres grupos se felicitan por haber llegado a un acuerdo, añadiendo el concejal Mikel que en una moción de este tipo lo normal suele ser llegar a un acuerdo. Por otra parte, la concejal Zorione señala que a pesar de que la comisión de portavoces no llegara a un acuerdo, la moción ha podido ser incluida en esta reunión gracias al trabajo del concejal Andoni, indicando asimismo que la moción ha sido registrada en el ayuntamiento a nombre de los tres grupos.

Seguidamente el concejal Andoni lee el texto de la moción:

Gobiernos locales y regionales juntos en favor de la igualdad de mujeres y hombres en Europa y en el mundo

El Comité Permanente por la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local del Consejo de Municipios y Regiones de Europa (CCRE-CEMR) afirma que la igualdad entre mujeres y hombres es un derecho fundamental y un valor central de la democracia.

Los gobiernos locales y regionales, siendo las esferas de gobernanza más próximas a la ciudadanía, son fundamentales para abordar las persistentes desigualdades, y promover los derechos de las mujeres en Europa y en el mundo.

En este 8 de marzo de 2016, Día Internacional de las Mujeres, representantes de gobiernos locales y regionales se comprometen a:

- Recordar que la democracia no se puede construir sin las mujeres, con lo que es ineludible la adopción de todas las medidas necesarias a todos los niveles (local, regional, estatal y europeo) para conseguir una participación igualitaria de mujeres y hombres en los procesos de toma de decisiones;



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizarteen oinarritzeko elementua dela bermatu dezatela eskatzea Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, estatuetako gobernuei eta Europako instituzioei; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da, 4/2005 berdintasun lege autonomikoa integralki garatua izan dadin behar adina diru partida eta arau aktibatzen hasita.

- Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartu dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztiei, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok sinatu duten Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez;

- Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkretuak hartu ditzatela eskatzea Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuei ematen zaizkien botereen arabera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela. Udal honen kasuan onartua duen II. Berdintasun Plana bere kapitulu guztietan eta zehar lerrotasunez garatua izango delarik.

- Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeriari aurre egitea behar adina partida eta neurri zehatz abian ezarriz: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, indarkeria matxista eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak;

- Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren

• Hacer un llamamiento a la Diputación, Gobierno Vasco y los estados y a las instituciones europeas para que ratifiquen la igualdad de mujeres y hombres como elemento central de nuestros valores y de las sociedades europeas; por este motivo debe ocupar un puesto central en la agenda política y ser integrada en todas las políticas y legislaciones relevantes; comenzando con activar cuantas partidas y normativas sean necesarias para desarrollar íntegramente la ley vasca de igualdad 4/2005.

• Llamar a las ciudades y regiones de Europa a adquirir un compromiso formal en favor de la igualdad firmando la Carta Europea para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local, auspiciada por el CCRE-CEMR en 2006, que ha sido firmada hasta la fecha por más de 1500 ciudades y regiones;

• Promover que quienes hayan firmado la Carta tomen medidas concretas para promover la igualdad a nivel regional y local; hagan uso de las herramientas que pone a disposición el CCRE-CEMR a través de su Observatorio¹, en línea con los poderes conferidos a gobiernos locales y regionales en los diferentes países; y proporcionen los recursos financieros y humanos necesarios para su implementación. En el caso de este ayuntamiento desarrollando íntegramente el II. Plan de Igualdad en todos sus capítulos.

• Hacer frente – poniendo cuantas partidas y medidas sean necesarias – a la violencia que siguen soportando las mujeres en la actualidad, aún en el siglo XXI: se debe combatir toda forma de violencia perpetrada contra las mujeres en la vida pública y privada, incluido el tráfico de mujeres, la explotación sexual, la violencia de género y otros actos contra los derechos humanos de las mujeres;

• Hacer un llamamiento a la Diputación, Gobierno Vasco, los estados e instituciones de la UE para adoptar unas políticas y



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzea Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, estatuetako gobernuei eta EBko instituzioei. Emakumeen aurkako indarkeria eta indarkeria matxista oro prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berretsi dezatela eskatzea gobernu nazionaleri. Horregatik udal honek konpromisoa hartzen du herri mailan indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa aktibatzeke herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.

- Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozteko. Horregatik udal honek konpromisoa hartzen du pertsona etorri berri eta errefuxiatuei begirako harrera protokoloa aktibatzeke".

- Maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi dezatela, Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeari begira, horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.

Bestetik, Astigarragako Udalerriko Osoko Bilkurak hurrengo konpromisoak hartzen ditu:

1.- Berdintasun saileko aurrekontua urtero areagotzea II. Berdintasun Planak aurreikusitako ekintzak burutzeko adina diru egon dadin gutxienez bermatzeko.

2.- Emakume eta Gizonen berdintasunerako Ordenantza lantzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.

3.- Herriko kale izendegia errebisatu eta emakume izenak ezartzeko.

legislación comunes con respecto a la prevención, protección y apoyo a todas las mujeres víctimas de la violencia de género; hacer dicho llamamiento a los estados para que ratifiquen el Convenio del Consejo de Europa para prevenir y combatir la violencia contra las mujeres y la violencia doméstica (Convenio de Estambul). Por eso este Ayuntamiento se compromete a activar – a nivel local – el protocolo para hacer frente a la violencia machista, en colaboración con los grupos de mujeres y de feministas del municipio.

- Tener en cuenta las necesidades específicas de mujeres y menores refugiados que huyen de la guerra y la persecución, y que llegan a nuestras ciudades y municipios; proporcionarles la acogida y la atención adecuadas y la prevención de toda clase de violencia y discriminación. Por eso este Ayuntamiento se compromete a activar un protocolo de acogida (*harrera-protokoloa*) para los recién llegados y refugiados.

- Demostrar su voluntad de cooperación a nivel global para conseguir el Objetivo 5 de la Agenda 2030 de las Naciones Unidas, que tiene como objetivo poner fin a toda forma de discriminación contra las mujeres.

Por otra parte, el Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga adopta los siguientes compromisos:

1.- Subir anualmente el presupuesto del Departamento de igualdad, para garantizar como mínimo que haya crédito suficiente para llevar a cabo las actividades previstas en el II. Plan de Igualdad.

2.- Elaboración de la Ordenanza para la Igualdad entre Mujeres y Hombres, en colaboración con las mujeres y grupos feministas de la localidad.

3.- Revisión del callejero municipal e inclusión de nombres de mujeres.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

4.- *Bide horretan, Astigarraga udalerriko Osoko Bilkurak, "Juanitoenea" etxearen atzealdean dagoen plazari "Emakumeon" edo "Martxoak 8" plaza izena jartzeko eta bertan dagoen pareta zurian berdintasuna oinarri izango duen murala egiteko.*

5.- *Dagoeneko emakume izena duten kale edo plazetan eta izendatu daitezkeenetan, emakume horren biografia edo datu historiko interesgarrienak bilduko dituen plakak jartzeko, hala nola, gaur egungo Nabarra Oinatz kalea eta Kontxa Etxeberria plazan adibidez.*

6.- *Sortzen dituen idazki guztietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiltzeko.*

7.- *Diru-laguntzetan genero klausulak ezartzen jarraitzeko eta ez ezarria ez duenik balego txertatzeko.*

8.- *Herriko puntu beltzen mapa osatzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.*

9.- *Herriko jai eta ospakizunetan parte-hartze parekidea landu eta sustatzeko, herriko taldeekin elkarlanean.*

10.- *Astigarraga udalerriko Osoko Bilkurak, dei egiten du emakume eta talde feministek deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.*

Mozioa bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

6. Informazio, galdera eta eskariak

a.- Batzorde informatzaileak.

Andoni zinegotziak adierazi du azken hilabeteetan ez direla egin obra eta zerbitzuak, hirigintza eta pertsonal batzorderik (azkenekoak orain dela 3 hilabete, 3 hilabete

4.- En ese sentido, el Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga propone denominar "Emakumeon plaza" edo "Martxoak 8 plaza" a la plaza situada detrás de la casa "Juanitoenea", construyendo un mural basado en la igualdad en la pared blanca de dicha plaza.

5.- En aquellas calles o plazas que llevan nombre de mujer, como en las actuales calle Nabarra Oinatz y plaza Kontxa Etxeberria, o en aquellas otras que puedan llevarlo en adelante, colocar placas con la biografía o los datos históricos más interesantes de las referidas mujeres.

6.- Utilizar un lenguaje no sexista e inclusivo en todos los escritos generados en el ayuntamiento.

7.- Seguir incluyendo cláusulas de género en las ayudas, añadiéndolas en los casos en los que no hayan sido incluidas.

8.- Elaborar un mapa con los puntos negros de la localidad, en colaboración con las mujeres y los grupos feministas de la localidad.

9.- Fomentar y promover una participación paritaria en las festividades y celebraciones populares, en colaboración con los diferentes grupos de la localidad.

10.- El Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga hace un llamamiento a la participación en las movilizaciones convocadas por las mujeres y los grupos feministas.

Tras la votación la moción queda aprobada por unanimidad.

6.- Información, ruegos y preguntas.

a.- Comisiones informativas.

El concejal Andoni señala que durante los últimos meses no se han convocado comisiones de obras y servicios, urbanismo y personal, habiéndose celebrado las últimas



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

eta erdi eta 5 hilabete eta erdi urrunez urrun egin ziren), eta lehenbailehen egitea eskatu ondoren, egiteko aurreikuspenik dagoen galdetu du.

Alkateak erantzun dio asteazkenean ogasun batzordea eta ostiralean obra eta zerbitzuak eta uholdeen batzordea egingo direla. Hirigintza batzordea, berriz, ostegunean egitea aurreikusi zela adierazi du, baina egun horretan Gasteizen bilera dutela eta ez dakitela noiz izango den.

Zorione zinegotziak hartu du hitza, eta kultura eta euskara eta gizarteko batzordeak ere egingo direla adierazi du.

Andoni zinegotziak denak aste berean egitea ez dela beharrezkoa adierazi du.

b.- Udal osoko bilkura

Andoni zinegotziak bilerak 2 hilabetetik behin egitea onartu zela, eta 9 hilabete hauetan (abuztua barne) 7 egin direla komentatu du. Beharrezkotzat hartuaz bilerak koordinatzea.

c.- Autobus-zerbitzua

Andoni zinegotziak adierazi du autobus-zerbitzuan parada berri bat jarri zela, baina Aldundiak udalarekin harremanetan jarri gabe, eta segurtasun arazoak argudiatuz, kendu egin duela.

Bestalde, hitzordu eman dieten galdetu dio alkateari. Horrek erantzun dio astelehenean adieraziko dietela bilera zein egun eta orduetan izango den.

d.- Aparkaleku mugatuen ordenantza

Andoni zinegotziak ordenantza horren behin betiko onarpena bilera honetara zergatik ez

hace 3 meses, 3 meses y medio y 5 meses y medio, respectivamente, y tras pedir que se convoquen cuanto antes, pregunta si hay algo previsto en ese sentido.

El alcalde responde que el miércoles se reunirá la comisión de hacienda y el viernes la de obras y servicios e inundaciones. Prosigue diciendo que estaba previsto que la comisión de urbanismo se reuniera el jueves, pero que ese día tienen reunión en Vitoria y no sabe cuándo se hará la comisión.

Toma la palabra la concejal Zorione, señalando que las comisiones de cultura y euskera y servicios sociales también se reunirán próximamente.

El concejal Andoni señala que no hace falta que se convoquen todas la misma semana.

e.- Pleno Municipal

El concejal Andoni indica que se aprobó convocar una reunión cada dos meses, y que en los últimos 9 meses, incluido agosto, se han reunido 7 veces. Por lo que consideran necesario coordinar las reuniones.

c.- Servicio de autobuses

El concejal Andoni indica que el servicio de autobuses instaló una nueva parada, pero que la Diputación la ha suprimido aludiendo problemas de seguridad y sin ponerse previamente en contacto con el ayuntamiento.

Por otra parte, le pregunta al alcalde si ya les han dado cita. A lo que este le responde que el lunes les van a decir qué día y a qué hora se celebrará la reunión.

d.- Ordenanza sobre aparcamientos limitados

El concejal Andoni pregunta por qué no han traído a esta reunión la aprobación definitiva



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

den ekarri galdetu du. Mugikortasun batzordean ordenantza onartzeko premia zegoela esan baitzen, eta horregatik bere alderdiak aurkeztutako alegazioa onartu, baina beren proposamena txertatzeko 2 hilabete eman baitzen aztertzeko; eta gero ordenantzaren aldaketaren bidez bideratuko beharko dela.

Nerea zinegotziak hartu du hitza eta ez ohiko bilera denez, gai gutxi sartzen saiatu direla azaldu du, eta 15 egun barru beste bilera bat egongo denez, bertan landuko dela gaia.

Ramón zinegotziak ordenantzari 2 alegazio aurkeztu zitzaizkiola, eta ordenantza EHBilduk eskatutako aldaketak egin gabe onartuko dela, eta gero Ergobia eta Anuskako arazoa nola konpondu aztertuko dela, batzordean gelditu bezala.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du beraiek aurkeztutako alegazioa ez dela ulertu, eta azterketa ordenantza onartu aurretik egin behar zela, baina onarpenak premia zuela argudiatuz, azterketa 2 hilabete atzeratu dela. Bestetik esan du hurrengo bilera ere ez ohikoa izango dela.

e.- Azoka

Andoni zinegotziak azokaren baloraziorik egin den eta gaia nola dagoen galdetu du.

Alkateak erantzun dio Astiko eta federazioarekin hitz egin dutela, eta azkenekoak azoka bideragarria izateko ostiralero arratsalde egitea proposatu dutela, eta proposamen hori Siadeco eta Astikori pasa dietela, eta azken horien erantzunaren zain daudela.

Andoni zinegotziak aipatu du herriko dendari guztiak ez direla Astikoren bazkide, esaterako, janari-denda txikietakoak; eta horiekin harremanetan jartzea ere beharrezkoa litzatekeela.

de dicha ordenanza. Y es que en la comisión de movilidad se señaló la urgencia de aprobar la ordenanza, por lo que la alegación presentada por su partido fue aprobada, dándose en cualquier caso 2 meses para analizar la inclusión de su propuesta, debiendo ser posteriormente tramitada como modificación puntual de la ordenanza.

Toma la palabra la concejal Nerea, para señalar que se han incluido pocos temas por tratarse de una sesión extraordinaria, pero que dentro de 15 días habrá una nueva sesión, y que se va a analizar en la misma.

El concejal Ramón explica que se presentaron 2 alegaciones a la ordenanza, que se va a aprobar sin la propuesta de EHBildu y que posteriormente, se va a analizar la manera de abordar el problema de Ergobia y Anuska, tal y como acordaron en la reunión.

Toma la palabra el concejal Andoni para señalar que la alegación presentada por ellos no se ha entendido, y que el análisis debió realizarse con anterioridad a la aprobación de la ordenanza, atrasándose dicho análisis 2 meses debido a la urgencia de la aprobación. Por otra parte señala que la próxima sesión también será extraordinaria.

e.- Mercado.

El concejal Andoni pregunta si se ha valorado el mercado y cómo está ese tema.

El alcalde le responde que ya han hablado con Astiko y con la federación, y que esta última les ha propuesto organizar el mercado todos los viernes por la tarde, ya que consideran que la única manera para que sea viable. Añade que han trasladado la propuesta a Siadeco y a Astiko, y que están a la espera de respuesta.

El concejal Andoni señala que todos los comerciantes de la localidad no son socios de Astiko, por ejemplo los de las tiendas de alimentación pequeñas, y que también deberían ponerse en contacto con ellos.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Alkateak azaldu dio lan hori Siadeco enpresa egiten ari dela, horretarako kontratatu baita. Andoni zinegotziak adieraziz udala bere gainean egon beharko lukeela, ze merkatariekin hitz egin duten jakiteko.

El alcalde le explica que Siadeco se encarga de dicha labor, ya que ha sido contratada para ello. El concejal Andoni le señala que el ayuntamiento debería estar encima, para saber con qué comerciantes han hablado.

f.- Bizilagun batek aurkeztutako kexa

Andoni zinegotziak bizi lagun batek udalaren utzikeria salatuz kexa bat aurkeztu duela adierazi du. Bizilagunak etxe bat alogera sozialean hartu eta berea orain dela 8 hilabete udalaren esku utzi baitu, baina udalak oraindik ez du berea errentan jarri, eta gainera egin dituen eskaerei ere ez omen zaie erantzun.

f.- Queja presentada por un vecino

El concejal Andoni señala que un vecino ha presentado una queja denunciando la dejadez del ayuntamiento. Y es que este vecino ha adquirido una vivienda en alquiler social poniendo la suya a disposición del ayuntamiento hace ahora 8 meses, pero el ayuntamiento no la ha alquilado todavía, ni tampoco ha respondido a las solicitudes que ha realizado al respecto.

Alkateak etxea udalaren esku utzi duenetik ez direla oraindik 8 hilabete pasa azaldu du batetik; eta bestetik, prozesua martxan dagoela, baina denbora behar dela (eskatzaileen zerrenda jendaurrean jarri...) eta gaur bertan jarri dela zozketa-eguna.

El alcalde explica que, por una parte, todavía no han transcurrido 8 meses desde que puso su casa a disposición del ayuntamiento, y que, por otra, el proceso ya está en marcha pero se necesita tiempo (exposición pública de la lista de solicitantes...), habiéndose acordado hoy mismo la fecha del sorteo.

Andoni zinegotziak deialdia maiatzean egin zela adieraztean, alkateak jarraitu beharreko izapideak ez zeudela zehaztuta adierazi du. Andoni zinegotziak, berriz, deialdian prozesua eta izapidea zehaztuta zeudela adierazi du, eta alkateak erantzun dio, juridikoko deialdia ez zegoela ondo, baina ez dakiela azaltzen zer den gaizki zegoena, eta nahi badu hirigintza batzordean galdetu dezakeela. Orduan, Andoni zinegotziak hirigintza batzordean galdetuko duela adierazi du.

Cuando el concejal Andoni señala que la convocatoria se realizó en mayo, el alcalde señala que los trámites a seguir no estaban definidos. El concejal Andoni, en cambio, señala que el proceso y los trámites venían ya definidos en la convocatoria, respondiéndole el alcalde que jurídicamente la convocatoria no estaba bien, pero que no sabe decir que problema había, y que si le parece podría preguntar en la comisión de urbanismo. A lo que el concejal Andoni responde que preguntará en la comisión.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2016ko otsailaren 26an.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko idazkaria